



DANI BLANCO

**Inma Errea**

ITZULTZAILEA ♦

## Kontrolpean

IRAILAZ GEROZTIK, elektrizitate-konpainiakoak lau aldiz etorri dira kontagailua aldatzera. Argi esan diegu ahoz eta idatziz: ez dugu nahi kontagailu digitalik. Baina etortzen jarraitzen dute.

Esaten digute doan dela kontagailu-aldaketa, baina guk ez dugu ikusten arrazoirik ongi dabilen kontagailua aldatzeko. Azken bisitan, paper bat sinatu nuen gure uko erabatekoarekin. Etorri zen langileak aipatu zuen agian agindu judizialak baliatzen hasiko dela enpresa. Susmagarria da halako ahalegin handietan aritzea enpresa bat, ez bada asko duela irabazteko.

Arrazoi asko daude kontagailu digitala jartzeari ezetza emateko (lanpostuen galera, adibidez), eta kasu emateko modukoa da gure kontsumoen gaineko kontrola zorrozteko dutela.

Orain aldian-aldian kontagailua irakurrita dakite zenbat elektrizitate gastatzen dugun. Kontagailu digitalen bidez, etengabe –gau eta egun– kontrolatuko dute noiz, nola eta zertan kontsumitzen dugun argindarra. Horri esker, izugarritzko boterea (ekonomikoa, baina ez hori soilik) eskuratuko du xede teoriko gisa herritarrei elektrizitate hornitzea duenak.

Beste kontrol bat, hori gabe ere aski kontrolaturik bizi garenontzat.

*Arrazoi asko daude kontagailu digitala jartzeari ezetza emateko, eta kasu emateko modukoa da gure kontsumoen gaineko kontrola zorrozteko dutela*

Beti izan baitira susmoak eta zantzuak herritarren gaineko kontrolari buruz, eta azkenotan susmoak ebidentzia bilakatzen ari dira. Nafarroako irakasleei buruzko Guardia Zibilaren txosten *erreserbatuaren* aferak, adibidez, jende askoren susmoak berretsi ditu. Agerian gelditu berri diren nazioarteko zein herrialdeen barneko espioitza kasuek bezala. Eta gero eta nabarmenagoa da ordenagailu, mugikor eta halakoen bidez gure bizitzetan sartzeko ahalmen izugarria dutela.

Kontrola beti egon da hor, eta teknologia berriek –zeinek eta teoriar gure bizimodua *errazten* omen duten horiek beraiek– kontrol hori areagotu eta erraztu dute. Geure borondatez (libreki?) geuk ordaintzen ditugun tresnak baliatzen dituzte gu kontrolatzeko.

Segur aski, ezer gutxi egiten ahal dugu kontrol-sistema horien kontra, baina komenigarria da haien existentziaz jabetuta egotea.

Eta behin ohartuta, zer? Kikildu gaitezke, edo irudimenari eta umoreari heldu. Eta esperimintatu. Batzuetan, *klik* batzuk aditzen ditugu telefonoan. Duela bi urteko hauteskunde espainiarren garaian ohartu ginen *klikadak* hitz jakin batzuk esan ahala aditzen genituela. *Gure lagun Amaiurren urtebetetzea* aipatu, eta *klik* egin zuen telefonoak. ■



DANI BLANCO



**Itxaro Borda**



IDAZLEA

## Funtsa

BATZUK erakunde armatuaren desagerpen osoa eskatzen dabilta eta besteek bake prozesuaren garapena ez dute baitezpada desarmatze hutsarekin lotzen. *Inkas de zebele* Zuberoan lerraketenez. Gramatika zaharretan bermatu diskurtso politiko irudiz berriak bihurtzeko dizkigute ondorioak surrealista direla: berrogeita hamar urtez fikziozko gerra pairatu dugulako sentazioa geratzen zaigu. Lehenetsi errealtatea eta errealismo ideologizatuak ditugu engoitik partida.

Armak noiz eta nori utzi. Galderaren funtsa.

Elkarrizketa sakonetan guda hurbiletik

egin/jasan –*rayez les mentions inutiles*– duten apurrek aitzina dezakete, perpausaren bitxia nehorik azpimarratu gabe: armak Herriari itzuli diezazkiogun Herria bera bere aldiaren arma bilakatu dadin. Herri Martirioaren mistikak indarrean segitu behar du nolabait etekin ekonomiko, kultural eta moralaren alorrean emankorra delakoan.

Anartean telebistako pantailan Aimar Olaizola ari da Martinez de Irujoren aurka. E(st)etikoki onartu dezakedan borroka bakarra da, gainerakoa mende erdiaz ito gaituztenen gorotzetik garbi eta onik ateratzeko saioa baino ez baita. ■

